SINATZAILEA
Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2024/04/25

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/04/25

**BERAKO ALKATEAREN EBAZPENA, EGURI BASERRIRA SARTZEKO BIDEKO KALTEAK KONPONTZEKO LANAK LARRIALDIZ KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEN DUENA.**

Ikusirik:

- 2024ko apirilaren 5eko Alkatetzaren Probidentziaren bidez, larrialdiko kontratazio-espedientea hastea xedatu zela 2023ko maiatzaren 20ko goizaldeko euri-jasek Eguri baserrira sartzeko bidean eragindako kalteak konpontzeko obrak egiteko. Probidentzia horretan adierazten da berehala jardun behar izan zela aipatutako hondamendiaren ondorioz.

- Espedientean jasota dagoela "BERAKO EGURIKO BASERRIRA SARTZEKO BIDEA KONPONTZEA, 2023KO MAIATZAREN 20KO UHOLDEEN ONDORIOZ KALTETUA" izeneko memoria teknikoa, Juan Bautista Guallart Vega bide, ubide eta portuetako ingeniariak 2023ko maiatzaren 23an idatzia, eta aipatutako probidentzian onartua jarduketaren justifikazio tekniko gisa.

- Toki Administrazioko eta Despopulazioko zuzendari nagusiaren irailaren 22ko 237E/2023 Ebazpenaren bidez, larrialditzat jotzen dela, eta Toki Inbertsioen Planean zenbait inbertsio sartzen direla behin-behinean (besteak beste, aipatutakoa), Toki Inbertsioen Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 Foru Legean aurreikusitako prozedurari jarraikiz.

- Excavaciones Mikel Ubiria SLk egin zituela obrak, eta horien zenbatekoa 92.392,81 eurokoa izan zela, BEZa kanpo (111.795,30 euro, BEZa barne), teknikari hark idatzitako obra-amaierako txostenean jasotakoaren arabera. Teknikariaren ordainsariak 6.490,80 eurokoak izan ziren, BEZa barne (2.163,60 euro memoria teknikoak idazteagatik eta 4.327,20 euro obren zuzendaritzarengatik). Aurrekontua,

**RESOLUCIÓN DEL ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE BERA, POR LA QUE SE APRUEBA EL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DE EMERGENCIA DE LAS OBRAS DE REPARACIÓN DE DAÑOS EN EL CAMINO DE ACCESO AL CASERÍO DE EGURI.**

Visto que:

- Mediante Providencia de Alcaldía de 5 de abril de 2024 se dispuso incoar expediente de contratación de emergencia para las obras de reparación de daños provocados por las de lluvias torrenciales de la madrugada del 20 de mayo de 2023 en el camino de acceso al caserío de Eguri. En dicha providencia se indica que se tuvo que actuar de manera inmediata a causa del acontecimiento catastrófico mencionado.

- Consta en el expediente la memoria técnica “REPARACIÓN DEL CAMINO DE ACCESO AL CASERÍO PERMANENTEMENTE HABITADO DE EGURI, DAÑADO POR LAS INUNDACIONES DEL 20 DE MAYO 2023, EN BERA”, redactada por el ingeniero de caminos, canales y puertos Juan Bautista Guallart Vega, de fecha 23 de mayo de 2023, aprobada en la citada Providencia como justificación técnica de la actuación.

- Mediante Resolución 237E/2023, de 22 de septiembre, del director general de Administración Local y Despoblación, se califica de emergencia y se incluyen provisionalmente en el Plan de Inversiones Locales diversas inversiones (entre ellas, la mencionada), de conformidad al procedimiento previsto en la Ley Foral 8/2022, de 22 de marzo, reguladora del Plan de Inversiones Locales.

- Las obras se ejecutaron por Excavaciones Mikel Ubiria, S.L. y su importe ascendió a 92.392,81 euros, IVA.exluido (111.795,30 euros, IVA incluido), según consta en el informe de fin de obra redactado por el citado técnico. Los honorarios del técnico ascendieron a 6.490,80 euros, IVA incluido (2.163,60 euros por redacción de memorias técnicas y 4.327,20 euros por dirección de las

SINATZAILEA
Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2024/04/25

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/04/25

guztira, 118.286,30 eurokoa da, Administrazioa jakinaren gainean egon dadin.

Kontuan izanda:

- Idazkariak 2024ko apirilaren 25ean emandako txostena, juridikoki justifikatzen duena jarduketaren larrialdi-izaera.

- Kontu-hartzaileak 2024ko apirilaren 24an egindako gastuaren fiskalizazio-txostena.

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 140. artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 224. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

1. Onartzea Eguri baserrira sartzeko bidean izandako kalteak konpontzeko obrak larrialdiz kontratatzeko espedientea eta egindako gastua.

2. Kontratua argitaratzea Nafarroako Kontratazio Atarian.

Beran, dokumentu honen sinadura digitalaren egunean.

obras). Total del presupuesto para conocimiento de la Administración: 118.286,30 euros.

Teniendo en cuenta:

- El informe emitido por el secretario el día 25 de abril de 2024, que justifica jurídicamente el carácter de emergencia de la actuación.

- El informe de fiscalización del gasto emitido por la interventora el día 24 de abril de 2024.

De conformidad con lo establecido en el artículo 140 de la Ley Foral 2/2018 de Contratos Públicos y los artículos 224 y siguientes de la Ley Foral 6/1990 de la Administración Local de Navarra,

**RESUELVO:**

1.- Aprobar el expediente de contratación de emergencia de las obras de reparación de daños en el camino de acceso al caserío de Eguri.

2.- Publicar el contrato en el Portal de Contratación de Navarra.

En Bera, a la fecha de la firma digital del presente documento.